

MUNDUITZULIA

Gure izena aplikazioarekin lotuta dago, izan ere, munduko edozein pertsonarekin komunikatzeko aukera ematen du. Horretaz gainera, "itzulia" hitza gehitu diogu munduari gure produktuak itzultzaile bat duelako erantsita hizkuntza oztopoak ekiditeko.

Guk aukeratutako ideia aplikazioa bat izan da, izan ere, gure helburua jendeak beste herrialdeko biztanleekin duten komunikazioa erraztea da eta aplikazio baten bidez denok mugikorra edo gailu elektronikoa dugunez, eskuragarria da jendearen gehiengoarentzat. Gure produktua itzultzaile bat erantsita duen sare sozial bat da, hortaz, jende berria ezagutzeko aukera ematen du, baina ukitu ezberdin bat du berritzailea bihurtzen duena.